

Herri Aldizkaria

otamotz

2004ko iraila 99. alea



-Nor da?

-Egun on, Goierriko Hitza

IRITZIZ IRITZI: J. M. BEREZIARTUA
ERREPORTAJEA: GAINZURI
ELKARRIZKETA: THE SOUL BAND

407



PEUGEOT
ZERBITZU OFIZIALA

HEG  **ALDE AUTO**

Mugitegi, 27 URRETXU - ☎ 943 72 51 37 / 943 72 58 64

ARGAZKI ZAHARRA



Zumarragako parrokiako aretoan 1942ko otsailaren 22an antzezlan eskaini zuen herritar taldeari ateratako argazkia.

Zutik, ezkerretik eskubira: Aurora Cuesta, Alicia Arbulu, Rosarito Alkorta, Teresita Zubizarreta, Ana M^o Zabaleta, Rosarito Bengoetxea, Miren Otegi eta Castora Rodriguez.

Makurtuta: Manolita Zabaleta, Felix Albisua eta Magdalena Albisua.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldia **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldia.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Kimets, abeslari bila



1990az geroztik kontzertu ugari eskaini eta bi herriotako neska askori kantatzeko aukera eman dien Kimets abesbatza kinka larrian da. Izan ere, arrazoi ugari medio, neska dexentek abesbatza utzi dute eta tajuz lan egiteko jende faltan dira. Hori dela eta, Otamotzen bitartez, Kimets-ekoek abesbatza parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diete kantua gustuko duten Urretxu eta Zumarragako neskei. Kimets-ekoek 6

neska behar dituzte gutxienez. Abesbatzako kide izateko baldintza bakarrak 16 urte beteta izatea eta kantuzaletasuna izatea dira. Kantuan aritzeko eta lagun berriak egiteko gogoia baduzue, Kimets-ekoak zuen zain izango dira ostiraletan 21:30etatik 23:00etara eta larunbatetan 15:00etatik 16:30etara Zelai-Arizti ikastetxeko aretoan. Anaren 696 844 193 telefonora deitzea ere baduzue.

Diabetesaren aldeko martxa

Asensio Sudupe zumarratarra lehendakari duen Gipuzkoako Diabetikoen Elkarteak "Diabetesaren aldeko martxa" antolatu du igande honetarako. Berdintasunaren alde, moeta orotako diskriminazioaren aurka, zelula amen ikerketaren alde, organu ematearen alde eta traba eta hesi guztien aurkako martxa hau eguerdiko 12etan abiatuko da Ondarretatik eta Boulevard-en amaituko da.

Zumarragako Udalak martxa honi bere babesa eman dio eta herritarrei igandean Donostiara joateko gonbitea luzatu zien joan zen astean emandako prentsaurrekoan. Antolatzaileek Donostiara joateko autobusak jarri dituzte. Autobusak 10:30etan irtengo dira Zumarragako udaltxe aurretik. Tiketak Bidea Eginez koordinadorako elkartearen egoitza guztietan, Sarria farmazian, Arruabarrena gozotegian, Gurutze Gorrian eta Herce dendan salgai dira, besteak beste, hiru eurotan. Gutxitu fisikoentzat jarriko den autobusean izena emateko Joxe Jauregirekin harremanetan jarri behar da.

www.megadenda.com

ramos
Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx
Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan

tarjeta megadenda txartela

Fernandez Oliveira, itzuliko garaile

Banatu taldeko Luis Fernandez Oliveira galziarrak irabazi du Goierriko Itzuliaren 23. ekitaldia, Martin Mata eta Diego Milanen aurretik. Taldekako sailkapena Serbitzu-Kirolgik irabazi du, erregulartasunarena eta mendikoa Diego Milanek eta tarteko helmugena Julen Zuberok. Zumarragan bukatu zen lehen etapa Diego Milanek irabazi zuen, Santa Barbaran bukatu zen bigarrena Eder Salasek eta Labeaga kalean amaitu zen hirugarrena Lander Aperriak.



Mairiren Herrien Eguna



Igandean Mairi elkartearen VI. Herrien Eguna ospatu zen Kalebarren-Areizaga plazan. Aurten, Xakobeoa dela eta, Galizia izan da Herrien Egunaren protagonista nagusia. Hala, Gasteizko Galiziako Zentruko gaitajole bandaren saioa izan zen. Bestalde, erakustokietan Andaluzia, Gaztela, Extremadura, Galizia, Errioxa eta Euskal Herriko informazio turistikoa eta herrialde horietako guztietako jakiak dastatzeko aukera izan zen.

De la Cuadra Salcedo Zumarragan

Miguel De la Cuadra Salcedo abenturazale sonatua Zumarragan izan zen abuztuaren bukaeran Anton Arbulu alkateari hurrengo espedizioa azaltzen. Izan ere, espedizio honetan parte hartuko duten 58 herrialdetako 300dik gora gazte Zumarragan izango dira datorren urteko uztailean. Gazte hauek Liman hasiko dute bidaia eta Perutik pasatu ondoren, Euskal Herrira etorriko dira. Zumarragan Legazpi dorretxea eta Antioko baseliza bisitatuko dituzte.



EDURNE

GIZONEZKOEN
JANTZIDENDA ESKUZ
ALDATU NAHI DA

☎ 943 72 14 17



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Zumarragako Trikitixari omenaldia abenduan



Zumarragako Udalak omenaldia eskainiko dio Zumarragako Trikitixari abenduaren 12an. Omenaldi egunak bi ekitaldi nagusi izango ditu: "La Trikitixa de Zumarraga y su entorno (1920-2004)". Y nuevas aportaciones sobre la incursión del acordeón en la Península desde Francia en 1841" liburuaren aurkezpena eta Antonio Oteizaren "Trikitixa" eskulturaren inaugurazio ekitaldia. Giza tamainako trikitilari eta panderojole bikotea azaltzen duen eskultura hau Elizkaleko errotondan jarriko da. Zumarragako Udalak aurtengo Santa Lutzi bezpera euskal kulturaren inguruko jai egun handia izatea nahi du. Hori dela eta, egun osoan zehar trikitilari asko eta asko ibiliko dira herriko kaleetan zehar eta bazkari herrikoia ere izango da.

Antioko Musikaldia

Urteroko moduan, iraila heltzearekin batera, musika onenaz gozatzeko aukera dugu Antioko ermitan. Aurtengoa Antiguako Musikaldiaren XXI. ekitaldia dugu.

Lehen kontzertua Urueñako laukoteak eskaini zuen iraileko lehen larunbatean. Joan zen astean, berriz, Jose Luis Estelles klarinetejolea eta Juan Carlos Garbayo pianojolea izan ziren Antion.

Larunbat honetan, 19:30etan, Donostiako Talde Barrokoak Buxtehude-ren "Membra Jesu Nostri" kantata eskainiko ditu. Aurtengo Musikaldiko azken kontzertua datorren larunbatean izango da, hilaren 25ean. Nerea Erauskin sopranoak eta Patxi Aizpiri pianojoleak Scarlatti, Lotti, Parisotti, Obradors, Turnia, Mozart, Puccini, Massenet eta Gounod-en lanak eskainiko dituzte.

Avenida eta Iparragirre kalea, festetarako prest

Abuztuan bukatu ziren Avenidako zaharberritze lanari eta Iparragirre kaleko zoruaren konponketari esker, herritarrek sekula baino erosoago gozatu ahal izango dute bertan izaten diren jaietako ekitaldiez.

Avenidako zaharberritze lanen helburu nagusiak Avenidan oinezkoen lehentasuna ematea eta oztopo arkitektonikoak kentzea izan dira. Horretarako, errepidea eta espaloia altuera berean jarri dira eta Barrenkalera ematen duen hormaren zati handi bat kendu da aldapa egiteko. Bestalde, jolas parke, argiteria eta aulki berriak jarri dira.

Urretxuko Udalak arratsaldeetan eta asteburuetan Avenida autoei ixtea erabaki du. Hala, lanegun goizetan soilik aparkatu ahal izango da bertan. Avenidan garajea duten bizilagunek, berriz, noiznahi atera eta sartu ahal izango dituzte euren autoak. Izan ere, urrutiko aginteaz sarrera garaiziko duten pibotak jaitsi ahal izango dituzte.

Avenidako obrak 506.330,17 euroko aurrekontua izan du. Diru horren erdia Eusko Jaurlaritzak jarri du Izartu plangintzaren bitartez eta beste erdia Urretxuko Udalak.

Aurtengo udan, Avenidako zaharberritzea bukatzeaz gain, Iparragirre kaleko zoladura aldatu da. Urretxuko Udalak galtzadarrien ordeztu hauen itxura duen hormigoizko inprimatua jartzea erabaki du. Izan ere, Iparragirre kaletik ibilgailu ugari pasatzen dira eta galtzadarriak sarri askotan altxatu dira azken urteotan.

Iparragirre kaleko zoladura Mendiola enpresak aldatu du eta aurrekontua 9.000 eurokoa izan da. Mendiolakoen esanetan, hormigoizko zoladurak 10 urtetan ez du inongo zaintzarik behar. Denbora hori pasata, zoladuraren goialdea soilik berritu behar da.

Urretxuko gepardoa

Xabier Ormazabal mendizale urretxuarrak SESB zeneko bost mendi altuenak igotzen dituenari ematen zaion "Elurretako Gepardoa" titulua lortu du. Xabier da titulu hori lortzen duen lehen euskalduna. Horretarako, Lenin, Komunismo, Pobeda, Khan Tengri eta Korgenewskaya mendiak igo behar izan ditu.


Duela bi urte Komunismo mendia igo zuen, iaz Khan Tengri eta Pobeda igo zituen eta aurtan Lenin eta Korgenewskaya igo ditu. Irailaren 9an Xabier Himalaya aldera abiatu zen, Iñaki Alvarez zumarratarrarekin eta Pedro Garziarekin batera, Shisha Pangma eta Cho Oyu igotzeko asmoz.



Ostiralean irekiko da kiroldegia

Ostiral honetan, 18:45etan, irekiko dira berriro Aldiri kiroldegiko ateak. Irekiera ekitaldiaren ostean, Goierriren saskibaloia eta areto futbol taldeek jokatu dituzten partidak ikusteko aukera izango da.

Estalki berriak egurrezko egitura du eta kurbatua da. Pello Gonzalez alkateak Otamotzi aipatu dionez, estalki berria "aurrekoa baino hobea da estetika, aireztapen eta argitasun aldetik, alboetan eta aurrealdean leihoak baititu". Horretaz gain, pisu handiagoa jasateko prestatua dago, noski. Lehengoa metro karratuko 50 kilo jasateko prestatua bazegoen, berriak 80 kilo jasan ahal izango ditu. Pista berria urdin kolorekoa da. Alkateak esan digunez, aseguru etxeak emango duen dirua nahikoa izango da obra ordaintzeko.



Txalaparta Egunaren arrakasta itzela

Txalaparta doinuak izango ziren nagusi larunbatean Urretxun, Zuhaitzaren Soinua Kolektiboak lau urtez behin antolatzen duen Txalaparta Eguna dela eta. Aurtengoa hirugarren ekitaldia izan da.

Goizean, inguruko mendi eta auzoetatik eskainitako txalaparta diana izan zen, herriko artistek muralak margotu zituzten txalaparta gaitzat hartuta, herritarrek txalaparta jotzeko eta sagardoa dastatzeko aukera izan zuten eta Oria eta Larrañaga trikitilariekin poteo herrikoia izan zen. Arratsaldean, berriz, trikitilari eta albokariak giroturiko txistolarra jana, txalapartarien saio libreak eta



Zorabiok taldearen ikuskizuna izan ziren. Bukatzeko, Euskal Herri osotik etortitako txalapartariak eta herriko musikari, bertso-lari eta dantzariak jaialdi zirrargarria eskaini zuten Iparragirre plazan.

ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

Jaureru

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga, 30 ☎ 943 72 27 80
URRETXU

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 - ☎ 72 11 55 - Zumarraga

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



J. M. Bereziartua, "Bere"

Leitzarra, Prusianoa eta Baxilio

Aurkeztu ditzagun: Leitzarra (bera ez da Leitzakoa, baina balio digu ipuinerako goitzen bezala), Prusianoa (Hau ere ez da prusianoa, baina motoan doanean daraman kaskoarekin ikusita, Otto Von Bismarck bera ematen du) eta azkenik, Baxilio. Azken hau benetako izena da. Hiruren artean 230 urte badituzte.

Gure etxe ondoko parkean egoten dira elkarrekin eserita, pasadizoan doazen neska gazteei begira, marmar batean. Baina ni bizikletan igotzen naizenean, neska gazteak pakean utzi eta nire lepotik barrezka hasten dira. "Aupa Indurain" esaten dit prusianoak. Prusianoak ez du aspaldi ikusi tourra, antza denez. Leitzarra begira gelditzen zait ezer esan gabe, eta Baxiliok koroa egiten dio Prusianoari. Nik ukabila astintzen diet edo mingaina atera, baina eurak, hala ere, barre egiten didate gogotik.

Lehenengo batean, ordea, etxetik behera nindoan, eta han ikusi nuen Baxilio bera ere errepidean behera. "Mendekurako une aproposa" pentsatu nuen neure kolkorako, eta berarengana hurbiltzen ari nintzenean, orro bat bota nion: "ALDE HORTIO, DEDIOSS". Salto galanta eman zuen, bai, espaloira. Nik bizikleta gelditu egin nuen gustura barre egiteko eta, bide batez, berarekin solasalditxoak egiteko. Maldizio andana bota zidanean baretu zen gizona, eta galdetu nion nondik nora ibilia zen.

-Aspaldian ez zaitut ikusi, Baxilio, nondik nora zabilta ba?

-Benidormen egon neok-esan zidan bere Dorraoko eus-kara berezi horrekin.

-Benidormen?-galdetu nion harriturik. Ezin nuen Baxilio bezalako "artista" bat Benidormen irudikatu, baino guxtiago irudikatu nezakeen gero kontatu zidana.

Prusianoa hasi omen zitzaion esaten zer giro zegoen Mediterraneo aldean, zer nolako eguzkia, eta emakumeak, eta hau eta bestea. Baxilio hurrengo egunean joan omen zen geltokira, eta leihatilakoari galdetu omen zion "Oye, ¿para ir a Benidor que kombinacion hay?", bere Dorraoko erdara xeble horrekin. Horrela iritsi omen zen Mediterraneo inguru haietara, konbinazioa joan eta konbinazioa etorri.

Behin han zegoela, hotel batez galdezka hasi zen, baina dena beteta omen zegoen. Ez bazuen gaua pasatzeko oherik topatzen, hurrengo egunean itzuliko zela pentsatu zuen, hondartzan lo egin eta gero.

-Joe, Baxilio! zuk bai kasta! hondartzan lo egiten 18 urtekoak bezala!

Baina azkenerako suertea eduki omen zuen, eta etxe batean eman omen zioten logela.

-Eta gelditu egin zinen?

-Bai ba, ongi egonen duk han eguzki ederra hartzen-erantzun zidan Dorraoeraz.

-Eta zenbat denbora egon zara ba?

-Hilabete eta erdi.

Hasieran aho zabalik gelditu nintzen, eta gerora, barrez lehertu beharrean.

-Zu bai artista Baxilio.

Horrelaxe joan zen gure solasalditxoak. Gero arratsaldean, berriz ikusi nituen hirurak eserita betiko bankuan. Baina ez zeuden neskei begira, eta ni beraien aurretik pasatu nintzenean, ez zidaten batere kasurik egin. Leitzarra eta Prusianoa Baxilioren gainera makurtuta zeuden, haren esplikazioak entzuten. Berak, berriz, eskuak asko mugitzen zituen, eta irribarre zabal bat zuen ezpainenetan.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599


ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Zer iruditu zaizu Goierriko Hitzaren 0 alea? Ekimen hau beharrezkoa dela uste al duzu?



Gurutze Mendizabal

Oso beharrezkoa dela iruditzen zait. Herriko albisteak egunero euskaraz kaleratzea oso ona da bai herriarentzat eta bai euskararentzat ere.




Gotzon Aranburu

Sekulako poza eman dit herri honetan horrelako ekimena aurrera atera dela ikusteak. Udalek eskatutako dirulaguntza eman behar dutela uste dut. Bestalde, harpidedunok zer edo zer ordaindu beharko genuke, euskarazko produktua izateaz gain, ona delako. Kazetari eskola ona izango da. Jendea berriren bat edo kexaren bat duen bakoitzean Hitzara deitzen ohitu dadila.



Jesus Agirrezabal

Gustura jaso dut eta oso ondo dagoela iruditu zait. Komunikabide berri bat ateratzen den bakoitzean asko pozten naiz, beste ikuspuntu bat jasotzeko aukera dugun seinale baita. Izan ere, ondo informatua egon beharra dago eta horretarako ikuspuntu guztiak ezagutu behar dira. Francoren garaian gauza negargarriak ikusi nituen eta ikuspuntu bakarra agoantatu behar gainera!



Jokin Calvo

Asko gustatu zait. Udan Urola Kostako Hitza ezagutu nuen eta hemen ere halako zerbaiten beharra somatzen nuen. Goierriko Hitza nondik-nora sortu den ez dakit, baina asko poztu nau.

HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Herri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Eraikin berriaz gozatzan



Ikasturte honetan hezkuntza eskaintza berria dugu herriotan: haurtzaindegi publikoa. Askoren ustez aspaldidanik eskura izan beharko genukeen eskubidea bada ere, haurtzaindegi hau eraikitzea lortzea ez da lan makala izan. Izan ere, Gainzuri ikastetxeek zazpi urte luzez lan egin dute haur eskola hartu eta Zelai-Arizti ordezkatu duen eraikin berria lortzeko. Haur eskolari eta eraikinari buruz hitz egiteko Inma Albisua Gainzuriko zuzendariarekin hitz egiten izan gara.

Gainzuriko irakasle, ikasle eta gurasoak pozez gainezka daude, aspaldiko ametsa bete baitute. "Urte asko itxaron behar izan dugu haur eskola eta eraikin berria lortzeko. Eraikin berriarena duela 6-7 urte markatu genuen erronka izan zen, eta haur eskolarena ere erronka horren barnean aurkitzen zen. Prozesu luze baten ostean, 2004 urterarte itxaron behar izan dugu hasierako ilusio hori egia bihurtua ikusi ahal izateko. Ibilbide zaila izan da, neketsua eta negoziaketa asko behar izan dituen, baina azkenerako, esan bezala, lortu da".

Bidean izan dituzten arazoengatik galdetzean, zera dio: "Arazoak administratiiboak, burokratikoak eta ekonomikoak izan dira gehienbat. Bi Udalekin eta Hezkuntza Sailarekin gogor lan egin behar izan dugu, baina azkenean lortu da bi herriotan Haur Eskola publikoa izatea". Inmaren esanetan, haurtzaindegia aurrerapauso handia da, "eskaintza publikoa osatzera baitator".

Eraikuntza berriaren beharrari dagokionez, azken urteetan Gainzuri bi herrietan banatua egon dela gogoratu behar da. "Gazteenek Urretxun eta zahartxoagoek Zumarragan ikasten zuten. Horrek hein handi batean baliabideak bikoiztu beharra dakar, egin beharreko lanean zailtasunak sortzen ditu, eta orotara, denbora asko kendu digu. Orain, berriz, ikasle guztiak eremu berean izanda eta banaketak sortzen zizkigun oztopoak gaindituta, baldintzak ematen dira kalitatezko eskaintza bateratua sortzeko".

Haurtzaindegi berria Gainzuri ikastetxearen oinetara altxatu berri den eraikinean kokatzen da, eta 5 gelatan 0 eta 2 urte arteko 60 haur inguruentzako tokia biltzen du. Gainera, Ikastetxe berriak, beste 12 gelatan, 2 eta 6 urte bitarteko haurrak ere bilduko ditu, eta honetaz gain, areto bat, psikomotritzitate gela bat, administrazio eta biltegi gelak eta jolas tokiak badiu eraikinak. Haur Eskolako irakaslegoari dagokionez, 7 irakas-

le eta erdi ditu. Hau da, 7 irakaslek egun osoan egingo dute bertan lan, eta beste batek soilik egun erdiz.

Esan beharra dago, hasera batean behintzat, ez zaiela Gainzurikoei egokitu haur eskola kudeatzea. Kudeaketa hori bi udalen eta hezkuntza sailaren artean osatutako partzuergoaren esku dago. Hala ere, "denborarekin pedagogi proiektu bakarretarako bidean sartzea espero dugu, eskaintza publiko osotu eta bakarra bihurtzea alegia. Horrela, herri honetako oinarri sendoa izatera iritsi nahi dugu", gaineratu digu

Gainzuri ikastetxeak inaugurazio egitaraua antolatu du. Urriaren 2an festa ospatuko dute

Inmak. Oraingoz behintzat, haurtzaindegiak jolas eremuak Gainzuri ikastetxearekin konpartitu beharko ditu. Honetaz gain, Inmaren esanetan "kontuan hartzekoa da eraikin berriaren beheko solairuan dagoen aretoa, bi herriei zuzendutako kultur eskaintza zabaltzera datorrena".

Halako eraikinak horrenbeste merezi duela eta, Gainzuri ikastetxeak inaugurazio egitaraua antolatu du. Hasteko, hilaren 22an Gainzuriaren bilakiera azaltzen duen argazki erakusketa irekiko da Juan de Lizarazu aretoan. Hilaren 30ean, 21:30etan, irakaskuntzarekin loturiko "Ser y tener" filme emanaldia eskainiko da Labeaga aretoan. Urriaren 2an, berriz, Gainzuriko ikasle, irakasle eta gurasoek inaugurazio festa izango dute. Bukatzeko, urriaren 13an, 18:30etan, "Eskolaren erronkak XXI. mendean" izenburua duen mahaingurua izango da Labeaga aretoan. Mahainguru honetan Ramon Flecha Kataluniako CREAko zuzendariak, Jose Ramon Orcasitas EHUKo irakasleak eta Neli Zaitegi Jaurlaritzako "Bizitzako trebetasunak" programako zuzendariak parte hartuko dute.



Goierriko Hitzza: bertak

Urritik aurrera, Otamotzeko harpidedun zare



Larunbatean Goierriko Hitzza egunkariaren 0 zenbakia jaso zenuten zuen postontzietan. Urritik aurrera, berriz, egunero-egunero jasoko duzue Goierriko albisteen berri emango duen egunkaria. Hona hemen Zintzo-Mintzoren partaidetzaz abian jarri den proiektuaren nondik-norakoak.

ZER ESKAINIKO DU GOIERRIKO HITZAK?

Egunero -astelehenetan izan ezik- eskualdeko 22 herrietako informazioa emango du. Urtean 285 zenbaki kaleratuko dira, abuztuan ez baita Goierriko Hitzarik izango. Egunero zortzi orrialde izango ditu, baina tarteka orrialde gehiagoko egunkaria egingo da. Zortzi orrialde hauetatik bitan Legazpi, Urretxu eta Zumarragako infor-

mazioa jorratuko da. Egunkaria doan eramango zaie egunero etxera Goierritarra eta Otamotz aldizkarietako harpidedunei eta eskatzen duten gainontzeko goierritarrei.

ZER DELA ETA SORTU DA?

Goierriin idatziz ez da herri informazioa egunero euskaraz lantzen -bi herri aldizkari daude, Goierritarra hamabostekaria eta Otamotz hilabetekaria- eta hutsune hori bete egin behar dutela ulertu dute proiektuaren bultzatzaileek. Batetik, garrantzitsua delako euskarazko komunikabideek ere herri informazioa egunero ematea eta beraiek erreferentzialtasuna lortzea; bestetik, Goierriin euskarazko egunkaria oso garrantzitsua delako euskararen normalizazio bidean.

NORTZUK BULTZATU DUTE?

Euskarazko Komunikazio Taldeko Bertako Hedabideek, Goierriko herri aldizkarien euskara elkarteek (Goierritarra eta Zintzo Mintzo euskara elkarteek) eta eskualdeko


gizarte eragileek bultzatu dute proiektua. Dagoeneko gizarte eragile hauek animatu dira enpresan sartzera: Lekaio Kultur Elkarteak, Legazpiko Bertso-Olariak, Maizpide euskaltegia, AEK, Hitzaro euskara taldea, Illati euskara taldea eta Goierriko Euskal Eskola. Dena dela, Hitzaren alde dagoen edozein elkarte, ikastetxek, enpresak... izango du hurrengo asteetan parte hartzeko aukera. Horretarako, eragileek kultur elkarteak sortu dute, eta hor egoteko bakoitzak gutxienez 150 euroko partaidetza erosi behar du.

INSTITUZIOEI DIRU LAGUNTZARIK ESKATU BEHAR AL ZAIE?

Goierriko Hitzaren aurrekontua 609.954 eurokoa da. Hitzaren sustatzaileak uda aurretik ari dira udaletan egitasmoa zehaztuz azaltzen. Udal bakoitzari urtean biztanleko hiru euroko laguntza eskatu diote. Izan ere, proiektu honek hasieratik sustraiak bota behar ditu, eta horretarako egunkari txukuna egin eta herritarrek bere

koa, euskaraz, egunero

etenok egunero zuen etxeetan jasoko duzue



Aldizkariak motxilan sartu, banatu eta irakurri... Eskerrik asko Goierriko Hitzaren 0 alea banatzen aritu zineten guztiei!

egiteaz gain, eskualdeko udalek laguntza hori eman behar dute sustatzaileen ustez. Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik laguntza jasoko dela espero dute, beste Hitzek dagoeneko jasotzen dutelako.

ZEINTZUK DIRA PROIEKTUAREN OINARRIAK?

Euskaltzalea: Euskararen erabileraren aldeko jarrera sustatuko du.

Plurala eta orekatua: Goierrin dauden sentsibilitate politiko, sozial, erlijioso eta beste edozein motatakoak kontuan hartuko dituen jarrera informatiboa edukiko du.

Baterakoia: Euskararen aldeko indar guztiak biltzeko, indar eta posizio politiko desberdinetakoak elkartzeko saioa egingo da.

Parte-hartzailea: Herrietan gerta litezkeen eztabaidetan herritarren parte-hartzea bultzatuko du iritzien, gutunen, argazki-inkesten... bidez.

Independentea: Bere lana ahal den ondoren betetzeko, Hitza independentea izango da alderdi politikoetatik, instituzioetatik

eta erdarazko komunikabideetatik.

Konprometitua eta profesionala:

Euskarazko komunikabide bat aurrera ateratzeko konpromisoa eskatzen du, euskara ez dagoelako oraindik egoera normalizatuan. Baina profesionaltasuna ere eskatzen du proiektu honek.

ETA KAZETARITZA OINARRIAK?

Interesgarria eta kalitatekoa: Herritarrek ez dute Hitza hartu behar euskaraz delako soilik, inguruko berri gehien, ondoen eta azkarren ematen duelako baizik.

Deigarria eta erakargarria: Horrelakoa izango da edukiaren aurkezpena.

Euskara irakurterraza: Kazetaritza hizkuntza ereduak erraza izan behar du.

ZEINTZUK DIRA HELBURUAK?

Egunkariaren helburuak eskualdeko komunikabideak osatzea, euskara laguntzea, Euskal Herriko euskarazko komunikabideen artean erakunde bakar sendoa lortzeko elkar ezagutza handiagoa bultzatzea eta

euskarazko komunikabideen erreferentzialtasuna lortzea izango dira.

NORA JO BEHAR DA EGUNKARIAN BERRIAK, IRAGARKIAK, ZORION AGURRAK EDOTA IRITZIAK AZALTZEKO?

Aipatu bezala, egunkariak herritarren parte-hartzea bultzatuko du. Hori dela eta, Goierriko Hitzaren egoitzetako atak zabal-zabalik izango dira. Hitzak bi egoitza izango ditu, Beasaingo egoitza nagusia eta Legazpi, Urretxu eta Zumarragarako delegazioa. Goierri Garaiko bulegoa Urretxun izango da, Zintzo-Mintzoren egoitzan (Labeaga, 12 etxeazpia, 943 72 34 08). Bertan, Miriam Luki eta Idoia Luzuriaga kazetariak izango dira. Beasaingo egoitza nagusian, berriz, beste zortzi langile izango dira: Aimar Maiz zuzendaria, lau kazetari, kudeatzailea, komertziala eta teknikoa. Komertzialarekin harremanetan jartzeko 610 082 225 telefonora deitu behar da.

GOIERRIKO HITZAREN SORRERAK OTAMOTZEN ALDAKETARIK ERAGINGO AL DU?

Goierriko Hitzaren sorrerak zenbait aldaketa ekarriko ditu orain arte Urretxu-Zumarragan euskarazko idatzizko hedabide bakarra izan den Otamotzen. Hitzak, egunkaria izanik, Otamotzek halabeharrez hartu behar izan dituen zenbait lan hobeto beteko ditu.

Hala, hileko albisteak biltzen dituen "Labur esanda" atalak aldaketak izango ditu eta "Zorionak" atala desagertu egingo da. Urritik aurrera Goierriko Hitza izango da albisteak emango dituen, labetik atera berritan gainera: biharamunean. Otamotzek, berriz, sakontze lana egingo du elkarrizketa eta erreportaien bidez. Bestalde, Goierriko Hitzak senitarte-koak eta lagunak euren urtebetetze egunean bertan zoriontzeko aukera eskainiko digu. Hori dela eta, makina bat adarjotze eragin duen Otamotzeko "Zorionak" atala desagertu egingo da.

Goierriko Hitzaren sorrerak, aldaketez gain, hobekuntzak ere ekartzea espero dugu. Hitzako eta Otamotzeko kazetariok bulego berean lan egingo dugu eta proiektu bereko partaide garenez, elkarri lagunduko diogu. Horretaz gain, Bertako Hedabideak enpresaren esperientzia baliagarria izango zaigu aldizkariaren azala eta mamia, banaketa... hobetzeko. Baina hori guztia egunkaria abian jarri ostean izango da.

Goierriko Hitza, ongi etorria eta urte askotarako!

BESTE PAUSO BAT

100 ale beteko ditu urrian Otamotz Herri Aldizkariak, eta hilero-hilero Urretxu-Zumarragako herritarrek albisteak euskaraz eta kalitatez jaso dituzte. Otamotz hilabetekaria lehen pausoa izan da komunikazio esparru euskalduna eratzen joateko asmoan eta arrakastaz erantzun dio orain arte.

Hilabetekaria argitaratzea garrantzitsua izan den arren, gure asmoak inoiz ez dira hor geratu, eta arretaz jarraitu izan diegu beste eskualdetako proiektu berriei. Euskarazko Komunikazio Taldean dagoen Bertako-ko kideek Goierriko Hitza ateratzeko asmoa azaldu eta gure lankidetzari nahi zutela azaldu zutenean, ondo hausnartu eta proiektuarekin bat egitea erabaki genuen aho batez. Zergatik ?

-Goierriko Hitzaren eta Berriaren filosofiarekin bat gertzelako eta filosofia horrekin orain arte lan egin dugulako. Kalitatezko herri aldizkari independente, parte hartzaile eta zabala argitaratzea izan baitugu beti xede.

-Euskararen normalizazio eta garapenean aurrerapauso garrantzitsua da egunero egunero bertako albisteak euskaraz jaso ahal izatea. Orain arte, bertako albisteak egunero jaso ahal izateko erdal egunkari batera jo behar izan du tamalez jendeak.

-Euskalgintzako enpresa garrantzitsueneko batekin, Goierriko euskalgintzako kideekin eta Urretxu-Zumarragako elkarte desberdinekin lankidetzarako eremua irekitzen duelako.

Beraz, Goierriko Hitzaren sorrera beste pauso garrantzitsu bat da Zintzo Mintzo Euskara Elkartearantz komunikazio esparru euskaldunaren eraketan. Eta horretan jarraituko dugu, pausu berriak ematen eta eragiten: Otamotz Aldizkaria berri eta indartzen, eskualdeko web orri dinamikoa sortzen eta hainbat eremutan (telebista, irratia) eragile izaten.

Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkartea

Goierriko Hitza komunikazio proiektu berrirako lanpostu hauek bete behar dira:

BANATZAILEAK/ BUZONEATZAILEAK Urretxu-Zumarraga eta Legazpirako

Lan baldintzak:

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

GAUEKO BANATZAILEA Goierriko

Lan baldintzak:

- Egunean 4 ordu.
- Gaueko 23:30etatik 3:30etara.
- Astean sei egun. Astelehenetik larunbatera.
- Autoa beharrezkoa da.

TOLESTATZAILEAK Beasaineko

Lan baldintzak:

- Egunean 2 ordu.
- Gaueko 12:00etatik 2etara.
- Astean sei egun. Astelehenetik larunbatera.

Interesatuak deitu lehenballehen 943 30 43 08 telefonora



Arima-arimatik eskainitako musika

Santa Anastasiek sekula baino hasiera beroagoa izango dute, Urretxu-Zumarragako "The Soul Band" taldearen eskutik. Izan ere, Urretxu-Zumarragako talde honek soul klasikoa jorratzen du, EEBBetako beltzek 60ko hamarkadan sortutako erritmo sentsuala. Ostiralean, 23:30etatik aurrera, Gernikako Arbola plaza labe gori bihurtuko ote?

ELKARRIZKETA

The Soul Band taldea 1996an sortu zen.



Taldekoek areto txikietan jotzen dute gustuen.



Haize-instrumentu joleak ezinbestekoak dira soul talde batean.



The Soul Band taldea Josi Labajos musikariak sortu zuen, *Josi y los Javis* taldearen ibilbidea amaitutzat eman ondoren. "Musika Eskolako irakaslea nintzenez, bertako ikasleekin talde zabala sortzeko aukera nuela pentsatu nuen. Gainera, nahiz eta *Josi y los Javis* taldean gitarra jotzen nuen, betidanik kantatzea izan dut gustukoen eta kantatzeko gogoia nuen. Bestalde, soul-a, funky-a..., musika beltza, bereziki maite ditudan musika lengoaiak dira. Asko pentsatu gabe, *The Soul Band* sortu nuen".

Soul talde bat sortzeko jende dexente behar da, haize-instrumentu joleak besteak beste, baina Josik ez zuen jendea inguratzeko inongo arazorik izan. Ia hasieratik taldean koruak egiten dituen Marisa Cid-ek azaldu digu Josiren proposamenaren arrakastaren zergatia. "Gure belaunaldikook soul-a ezagutzen genuen eta gazteagok ere begi onez ikusi zuten musika hau jorratzeko proposamena. Izan ere, eskolan musika klasikoa jorratzen zuten batez ere eta beste musika mota bat lantzeko gogoia zuten. Taldekide berriren bat behar izan dugun guztietan ez dugu jendea topatzeko arazorik izan".

Taldeak 14 kiderekin ekin zion lanari, soul klasikoa jorratzeko asmoz. "60ko hamarkadako soularekin hasi ginen eta poliki-poliki musika lengoia horren, soul-aren, eboluzioa ikusi eta landu dugu. Egun jotzen dugun kantuen artean eboluzionatuena Jamiroquai-rena da. Gure erreperorioa soularen historiaren errebasu txikia dela esan daiteke. Taldean kide berri bat sartzen denean, erreperorioa berritzeko eta konponketak egiteko aprobeztatzen dugu", dio Josi Labajosek.

Egun, taldea 9 kidek osatzen dute: Endika Alzelai baxujoleak, David Burgui gitarrajoleak, Koldo Cadierno saxofoijoleak, Ainhoa Enatarriaga pianojoleak, Joseba Etxeberria tronpetajoleak, Jon Muga bateriajoleak, Laura Rebollo koristak,

Marisak eta Josik. Josik, kantatzeaz gain, kantak konposatzen ditu eta taldearen arduradun nagusia da. "Nire ustez talde guztietan aurpegia emango duen eta taldea koordinatuko duen norbait izatea beharrezkoa

"Euskal Herrian soul talde bakarra ezagutzen dugu. Soul-a joz musikatik bizitzea oso zaila da"

da. Batez ere, gurea bezalako talde zabala bada. Kantak konposatzeko orduan ere lan handia dugu, instrumentu guztien moldaketa egiten baitut".

Kanta guztien letrak ingelesez dira, baita Josik konposatzen dituenak ere. Izan ere, soul-a euskaraz edo gaztelaraz kantatzea trikitixa edo flamenkoa ingelesaz kantatzearen modukoa omen litzateke. "Taldea euskaraz kantatzeari buruz eztabaidatu genuen, baina ingelesez soilik kantatzea erabaki genuen. Soul-aren hizkuntza ingelesa da".

Soul-a gora, soul-a behera... baina, zer da soula? Josirentzat barnean duena espresatzeko modua da. "Musika lengoia hau jorratzen oso eroso sentitzen naiz. Jazz-a, rock&roll-a... jo dut, baina soul-a jotzen hobe sentitzen naiz. Jazz-a kantatzen ez dut soul-a kantatzen eta dantzatzen lortzen dudana estasia lortzen". Marisak Josiren antzera sentitzen du soul-a. "Nik ez dut Josiren musika ezagupena, baina soul-ak berotasun handia ematen dit. Bestela azalarazi ezin ditudan azalarazten dizkit".

Talde gutxi dira, ordea, soul-ak sortarazten dituen sentipenez gozatzen dutenak. "Euskal Herrian, gureaz gain, soul talde bakarra ezagutzen dugu. Estatu mailan, berriz, *Fundación Toni Manero* taldeak arrakasta handi samarra lortu du eta beraien kantu bat iragarki batean entzun zen. Dena den, soul-a joz oso zaila da

musikatik bizitzea".

The Soul Band-ekoek horretarako ahalegintxoak egiteko aukerak izan dituzte, baina ezezkoa eman diete managerren eskaintzei. "Manager batzuek kontzertu zirkuituetan sartzea eskaini digute, baina ezezkoa eman diegu. Izan ere, ez dugu halako presioaz lan egin nahi. Manager batekin lanean hasteko, berak esaten duenean jotzeko prest izan behar duzu eta musika ez da gure lanbidea. Nahiago dugu geu geu managerrak izan eta gure erritmora lan egin".

Profesionalak ala afizionatu saiatuak, ezin alde batera utzi diska kontua. "Etorkizunera begira, gure asmoa musikaz gozatzen jarraitzea da. Taldea zenbat kidek osatzen dugun kontuan izanda, 8 urte ondoren jarraitze hutsak meritu handia duela uste dut (Josi). Orain arte ez naiz diska grabatzearen aldekoa izan, baina beharbada diska grabatzeko unea heldu dela uste dut. Izan ere, dagoeneko nire burua ingelesez grabatzeko prest ikusten dut; ingelesa ikasten eta bidaiatzen aritu bainaiz. Dena den, taldean ez dugu grabatzeko premia larrik sentitzen. Premia hori sentitzen dugunean grabatuko dugu. Grabatzea ondo dago, aretoetan gure burua eskaintzeko ondo baitator eta taldearentzat esperientzia berria baita. Gainera, talde baten garapenean beharrezko pausoa da".

Diska grabatzea beharrezkoa bada, kontzertuak eskaintzea zer esanik ez. *The Soul Band* taldeak 1996ko abenduan eskaini zuen lehen kontzertua, Urretxuko Pagoeta antzokian. Marisari oroitzapen onak dakartzkio kontzertu hark. "Senitartekoak, lagunak, lagun senitartekoak, senitartekoen lagunak... joan ziren gu ikustera eta denok oso gustura gelditu ginen. Eskaini ditugun kontzertuen oroitzapen onak ditugu, entzuleek ondo erantzun baitute eta guri talde bezala hazteko balio izan baitigute".

Dena den, Josi ez da kontzertu gehiegi eskaintzearen aldekoa. "Entseiatzea ere oso garrantzitsua da eta taldearen biziraupena luzatu nahi badugu, hilean bitan jotzarekin nahikoa da. Izan ere, ez gara profesionalak eta oso zaila

zaigu guztion egutegiak koordinatzea". Hain talde zabala izanik, areto handietan jotzea nahiago dute; baina txikietan ere moldatu egin behar... "Ez gara edozein tokitan sartzen, baina hemen musika areto zirkuiturik ez dagoenez, nola edo hala moldatzen gara".

Kontzertu gehienak areto itxietan eskaintzen dituzte, Marisa eta Josiren ustez soul-a jotzeko tokirik aproposenak baitira. "Donostiako Kandela aretoan, Lasarteko antzokian, tabernetan... jo dugu. Aretoetan errazagoa da entzulegoari soul-aren berotasuna igortzea. Berbenetan jotzeko erreperitorioa ere prestatu genezake, baina musika

"Musika entzuterraza da eta ez dago soulzalea izan beharrik kontzertuaz gozatzeko"

hau ez da berbenetan jotzeko aproposena. Ezkontzaren batean ere jo dugu, baina gure musika ez da ezkontzetara doan jendeak entzutea espero duena".

Ostiralean, ordea, aire librean joko dute. "Ez da aretoetan lortzen den berotasuna lortzen, jendea gehiago kostatzen zaio dantzan hastea... baina Urretxuko jaietako kontzertuan ere gustura arituko gara".

Gernikako Arbola plazan Aretha Franklin, Otis Redding, Maceo Parker, James Brown, Terence Trent D'arby, Jamiroquai eta Josi beraren kantak entzuteko aukera izango dugu, besteak beste. Baina, nolakoa izango da kontzertua? "Musika honek estasi handia sortzen du eta janzkerarekin ere giroa sortzen saiatzen gara. Soul-a esker onekoa da, adin guztikoen gaitasuna heldu baita. Ez dira soul kontzertu asko izaten eta jendeak gustura hartzen ditu: gure musika entzuterraza da eta ez dago soulzalea izan beharrik kontzertuaz gozatzeko".

Santa Anastasiak 2004

IRAILAK 17, OSTIRALA

17:00 - Lizeoan HAURRENTZAKO PARKEA.
18:00 - BATUKADA herriko kaleetan zehar.
18:30 - Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetatik ERRALDOI ETA BURUHANDIAK (LEKAITO KULTUR ELKARTEA) aterako dira. Auzo bakoitzean TXOKOLATADA bat egingo da eta ondoren hasiera emango zaio IBILALDIARI trikitilari eta dultzaineroen laguntzaz.
18:45 - ALDIRI KIROLDEGIA irekiko da.
19:30 - Pagoetatik Iparragirre plazaraino, UDAL MUSIKA TAILERRA, TXISTULARI ELKARTEA eta ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA izango dugu gure kaleak girotzeko.
19:30 - TXUPINAZOA txoznetan.
20:30 - Guztiok Iparragirre Plazan elkartu eta PREGOIA entzun ondoren KAINOIAREN DANBADA izango da eta elizako kanpaiek joko dute.
Ondoren, AKELARRE TXARANGA ibiliko da Urretxuko kaleak girotzen, goizaldera arte.
22:30 - Txozna gunean, KONTZERTUA, MIDDLE FINGER ETA KUDAI taldeak.
23:30 - Gernikako Arbola Plazan, SOUL BAND taldearen DANTZALDIA.
00:00 - URRETXUKO IPARRAGIRRE BALERDI MUSIKA TAILERREKO BANDAREN eskutik, DANTZALDIA Iparragirre plazan.

IRAILAK 18, LARUNBATA

09:30 - Abenida berrian, Urretxuko baserrietako ABELGORRIEN ERAKUSKETARI eman- go zaio hasiera; SECUNDINO ESNAOLA MUSIKA IKASTETXEKO TRIKITILARIAK izango dira bertan giroa alaitzen.
11:00 - URRETXUKO ERRALDOI ETA BURUHANDIAK irtengo dira.
11:30etatik 14:00etara, Lizeoko plazan, HAURRENTZAKO PARKEA.
11:30 - Ganadu lehiaketaren SARI BANAKETA. Jarraian, JOXE AGIRRE eta IMANOL LAZKANO BERTSOLARIEN SAIOA.
12:30 - IDI PROBAK San Martin-Barrenkaleko probalekuan.
13:30 - Folklore Jaialdian parte hartuko duten taldeei ongietorria udaletxean.
14:00 - HERRI BAZKARIA txoznetan. BERTSO-TOURRA.
16:30 - GOITIBERA UMORISTIKOA, Etxaburutik Areizaga-Kalebarren plazaraino.
17:00etatik 20:00etara, Lizeoko plazan, HAURRENTZAKO PARKEA.
17:00 - Ederrena pilotalekuan, XXIX. GASTRONOMI LEHIAKETA hasiko da.
18:00 - BIZNIETOS DE CELEDON TXARANGA Urretxuko kaleak alaitzen hasiko da. Ordu berean, IDI PROBEN 2. saioa izango da.
18:30 - Kaleetan zehar HERRIARTEKO XVI. FOLKLORE JAIALDIAN parte hartuko duten Valencia eta Ciudad Realeko taldeen desfilea.
19:00 - Gernikako Arbola enparantzan, HERRIARTEKO XVI. FOLKLORE JAIALDIA.
19:45 - IDI-PROBEN sari-banaketa San Martin-Barrenkaleko probalekuan.
21:00 - XXIX. Gastronomi Lehiaketako sari banaketa. Ondoren, afaria. Afalondoa BIZNIETOS DE CELEDON txarangak alaituko du.
23:00 - Urretxuko Txistulari taldearen eskutik KONTZERTU IKUSGARRIA (eguraldi txarra eginez gero, Labeaga aretoan izango da).
Kaleetan zehar, goizeko 3:30ak arte BIZNIETOS DE CELEDON txaranga.
00:00 - Txozna gunean, KONTZERTUA, REPUGNANCIA SOCIAL.
00:30 - Gernikako Arbola Plazan, DANTZALDIA GEISER ORKESTRAREKIN.
01:00 - Gaztetxean, TUBOESKADI.
02:00 - Txozna gunean, NEUBAT

IRAILAK 19, IGANDEA- EUSKAL JAIA

07:00 - SOKAMUTURRA Iparragirre plazan.
10:00 - URRETXUKO TXISTULARI, ZUMARRAGAKO TRIKITIXA ETA IRATZARRI DULTZAINEROEN KALEJIRA.
Aldi berean, GOIZEKO EUSKAL JAIALDIA,
11:00eta - Aldiri kiroldegian Euskal Herriko herrialde guztietako eta Urretxuko ERRALDOIAK elkartuko dira. Gero kalejiran ibiliko dira.
11:30etan hasita eta goiz osoan zehar, hainbat jarduera izango dira Iparragirre plazan: Artisauak, herriko trikitilariak, dultzaineroak, txalapartariak, dantzariak eta erraldoiak. Bertso Eskolako bertsolariek saio berezi bat eskainiko dute.
12:30 - MEZA NAGUSIA Martin Deunaren Eliza Nagusian.
13:30 - El Vendrelleko CASTELLERS-en saioa Gernikako Arbola plazan.
17:30 - KARROZEN IBILALDIAREN hasiera. Aurten 12 koadrila aritu dira lanean.
18:30 - Gernikako Arbola Plazan, URRETXUKO TXALAPARTARIEN eta ZUHAITZAREN SOINUA KOLEKTIBOAREN saioa.
19:15 - Lehenengo karrozak Gernikako Arbola Plazan sartzen hasiko dira. Denak heldu ondoren, EPAIMAHAIAREN ERABAKIA jakinaraziko da.
23:00 - Gernikako Arbola Plazan, KONTZERTUA KAUTA taldearen eskutik.
23:00 - ZAIN eta PATXANGA EUSKALDUNA taldeen KONTZERTUA txoznetan.
23:30 - EUSKARAREN ALDEKO KANDELA PIZTEA, Gernikako Arbola Plazan.
00:00etan - BEDAIOKO INGURUTXOA, dantza herrikoia, Gernikako Arbola plazan. Jarraian, ZESENSUZKOA Gernikako Arbola plazan.
Ondoren, plazan bertan, KAUTA taldearen KONTZERTUA.

IRAILAK 20, ASTELEHENA KOADRILEN EGUNA

11:30etatik 14:00etara, HAURRENTZAKO PARKEA, Lizeoko plazan altxorraren uhartea, peloten etxea eta puzgarriak.
12:30 - Iparragirre plazan, denontzako ZEZENTXOAK. Bertan IRAUNKORRAK txarangakoak arituko dira ikuskizuna girotzen.
Ondoren, IRAUNKORRAK TXARANGA eta koadrilen musika alaiak lagundurik, HERRI KALEJIRA.
14:30 - HERRI BAZKARIA Avenidan.
17:00etatik 20:00etara - HAURRENTZAKO PARKEA, Lizeoko plazan, altxorraren uhartea, peloten etxea eta puzgarriak.
17:00 - Bazkarian erabilitako mahaia jasoko dira.
18:00 - Gernikako Arbola Plazan HERRI KIROLAK KUADRILEN ARTEAN.
20:00 - Gernikako Arbola plazan, BETIZU TALDEAREN JAIALDIA.
21:00 - KANTU-AFARIA Abenidan. Lehengo eta orain- go euskal abestia abesteko aukera aparta, giro jatorrean.

ZORIONAK!



Amaia, ez zara kexatuko... aurten bi aldiz zoriondu zaitugu! Zure argazkia Bin Ladenena baino ezagunagoa da dagoeneko!



Amaia, ez dakigu amari noizbait zu zoriontzea ahazten zaion, baina guri ez zaigu behintzat sekula ahazten!



Ana, urtero euskaltegian ateratako argazkia ekartzen digute... dagoeneko irakaslea izango zara, ala? Zorionak eta ondo ibili!



Antonio, Brad Pitt-ekin batera Tibetera joateko asmoa al duzu? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Armando, zure txapeletako bat utzi al diozu Tim-i? Kostako zaio zuk eramaten duzun estiloaz eramatea... Zorionak!



Asun, oraingoan ere kafetegiren batean harrapatu al zaitugu Aintzane eta konpainiarekin? Zorionak eta ondo ibili!



Ui, ui, ui, **Begoña**... Behealdean ikusi duzun horrek txundituta utzi zaituela dirudi... Urtebetetze oparia al da?



Consuelo, ez dakit konturatu zaren, baina esku bat atera zaizu sorbalda gainean. Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Danel, ez genekien bi buru zenituenik... Ez al diozu eskubikoari argazkian ateratzen utzi behar? Zorionak!



Amelia, zer demontre egiten duzu Moulin Rouge aurrean? Nicole Kidman berria al zara? Zorionak!



Estitxu, zer eskatu duzu urtebetetze egunerako? Ea orratzia oparitzen dizuten, premia larria duzu eta! Zorionak!



Frank, alemaniarrek Europako motorra omen zarete, baina argazkiak ateratzen behintzat ez zarete oso trebeak! Zorionak!



Garikoitz, ez itzazu serio plantak egin, badakigu eta zenbat gustatzen zaizun adarra jotzea! Zorionak!



Igor, hortza horiekin txuleta ederrak jango dituzu sagardotegi denboraldia irekitzen dutenean... Zorionak eta ondo ibili!



Irati, zapia buruan eta ibili munduan! Zorionak eta ea aurrerantzean ere horren irrifartsu jarraitzen duzun!



Jaime, zer demontre dela eta zaude horren burumakur? Ea hurrengoan irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun!



Jaione, jostorraztak belarritik txintxilixka eramaten al dituzu botoiren bat erortzen zaizunerako? Zorionak!



Jon, Realak denboraldia panggal hasi duelako triste al zaude? Nola egongo ote zara orduan Kopako lehen kanporaketa ostean!



Jonmikel, bozgorailua hartu eta Avenidako kioskora igota goierritarrak garela aldarrikatu behar duzula esan digute...



Jose Mari, argazkilaria motela dela eta dagoeneko lokartzen ari al zara? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Josu, zer egiten duzu txamarra eta guzti? Izerditan urtuko zara, motel! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Josune, hori da hori musugorria duzuna... ardoa edan al duzu? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Joxepa, zu bai pertsona arduratsua eta ez inguruan dituzun arlote malapartatu horiek guztiak! Zorionak!



Leire, misio taldeko lagunek birritan zoriondu zaituztelako al zaude horren irrifartsu? Zorionak eta ondo ibili!



Lierni, orrialdearen ezker alde honetan hotz egiten duela dirudi... bikini-a erosi eta Cubara joan beharko duzu Josurekin!



Lourdes, hori da hori jende pila duzuna inguruan... metroa hartzera zozela dirudi! Zorionak eta ondo ibili!



Luis, ospakizunen batean harrapatzen zaitugu beti... oraingoan neska gazte baten ondoan, gainera! Zorionak!



Manolo, Luis non, zu han... zuk bai jakin norengana gerturatu! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Maria Jesus bihotzekua, segi ezazu horren irrifartsu... Zorionak Zumarragako parrokiako lagun guztien partez!



Marijo, Whitney Houston dirudizu, bizkartzain eta guzti! Atzeko horiek ez dute, ordea, Kevin Costner-en antza handirik!



Marko, hori da hori argazki kaxkara... nabari da bai lagunarteko afari baten ostean atera zutela! Zorionak!



Naiara, hori da hori itxuraldaketa... ez genekien Salamanca Milan edo Parisen parekoa zenik! Zorionak!



Oihana, eskerrak neska txintxoia zarela dakigun, bestela erretzeko zer edo zer prestatzen ari zarela pentsatuko genuke!




Olatz, jakin al daiteke zer demontre egin dizugun? Badaezpada ere ez dizugu adarrik joko... Zorionak eta ondo ibili!



Tim, hori da hori piura... zure buruan txapelak Egiptoko piramidean dirudi! Zorionak eta ondo ibili!



Unai, komunera joateko premian ala parrregurea agoantatu ezinik al zaude? Zorionak eta ondo ibili!



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

2004ko iraila

Mireia Rodriguez, Donostian arrakasta



Badira urte batzuk Urola Kirol Elkartearen softball taldea desagertu zela, baina urte haietan egindako lanak neska batzuegan kirol horrekiko zaletasuna piztu zuen eta bada oraindik softball aritzen den herritarrik. Hauen artean dugu Mireia Rodriguez, Urolako softball taldearen entrenatzailea izan zen Josemi Rodriguezen alaba. Mireiak Donostiako Atlético San Sebastián taldean jokatzen du eta bere mailako jaurtizaile onetsuena da.

Mireia oso gaztetatik zaletu zen beisbolaren antzekoa den softball kirolera. Izan ere, aipatu moduan, aitak Urolaren taldea entrenatu zuen eta talde horretan bere ahizpa nagusiak jokatzen zuen. "Nire ahizparen partidak ikustera joaten nintzen eta gaztetxoek taldea sortu zenean, 10 urterekin, Urolan jokatzen hasi nintzen".

Urolaren softball taldeak bizitza laburra izan zuen, baina Mireiak softballaren harra barruraino sartua zuen eta jokatzen jarraitzea erabaki zuen. "Beasainera joan nintzen jokatzen eta, han nengoela, Atlético San Sebastián taldekoek Espainiako txapelketa jokatzen deitu zidaten. Ondoren, beraiekin jarraitzea eskaini zidaten".

Mireiak eskaintza onartzea erabaki zuen. Baina Zumarragan bizi denez, La Sallen DBH ikasten ari da, ez du taldearen entrenamenduetara joaterik. "Astean bi edo hiru aldiz herrian entrenatzen dut aitarekin eta ostiraleetan Donostiara joaten naiz taldekideekin entrenatzera. Orain egunero entrenatzen hasi behar dut, aurki Espainiako txapelketa

IZERDI PATSETAN

jokatu behar baitugu Galizian. Aita entrenatzailea izatea abantaila handia da eta berak erakutsi digu bai ahizpari eta bai niri sofbol kontuan dakigun guztia".

Aita bere alabez harro dagoela ez da esan beharrik: alaba nagusiak, Asturiasera ezkondu zen arren, sofbolean jokatzeko jarraitzen du eta gaztea, 14 urterekin, helduekin jokatzeko hasiko da aurten. "Orainarte kadete mailan nengoen eta kadete mailako zein jubenil mailako taldeetan joka nezakeen. Aurten, berriz, jubenil mailara pasako naiz eta senior mailakoekin ere jokatzeko aukera izango dut. Aitari ez dio grazia handirik egiten, txikitu egingo nautela dio, baina nik gogo handia dut".

Mireia taldeko gazteena izango da, baina ez dio inongo lotsarik edo beldurrik ematen Donostiara zaharragoekin jokatzera joateak. "Oso gustura nabil. Entrenatzailea oso jatorra da eta orain arte partida asko jokatu ditut. Izan ere, bi taldeetan aritu naizenez, astebururo lau bat partida jokatzeko ditut. Gainera, asko irtetzen gara: Valentzian izan gara Espainiako txapelketa jokatzeko, Italian ere izan ginen Europa mailako txapelketa bat jokatzeko... Zortzi taldek parte hartu genuen eta azkenak gelditu ginen, baina errepikatze moduko esperientzia izan zen".

Gipuzkoa mailan, ordea, Atlético San Sebastián sofbol talde garrantzitsuena da, Orioko Bate Bizkorrak taldearekin batera. "Oriokoek ez dute kadete mailako talderik, baina helduen taldea ohorezko mailan dago. Gipuzkoan ez daude sofbol talde asko, baina oso kirol polita da eta jendea sofbolean jokatzeko animatzea gustatuko litzaidake. Izan ere, talde gutxi gaudenez, beti elkarren artean jokatu beharra dugu. Hala ere, Espainiako txapelketetan nahiko ondo aritzen gara: kadete mailako taldearekin bi aldiz irabazi dugu eta jubenil mailako talde-

arekin bosgarren eta laugarren gelditu gara".

Txapelketak irabazteaz gain, Euskadiko selekzioarekin ere jokatu izan du. "Kadete mailako selekzioarekin partida dexente jokatu ditut. Aurten jubenil mailako selekzioarekin ere hautatu naute, baina, lesionatuta egon naizenez, ez dut joaterik izan". Estatu espainiarreko hautatzaileek ere Mireia begiz jota dute dagoeneko. "Aste Santuan Bartzelonako CAR-en (errendimendu altuko zentroan) ere izan nintzen, nire taldekide batekin eta Orioko taldeko neska batekin. 2006ko Europako txapelke-



tarako Espainiako selekzioa berri nahi dute eta asko irakatsi ziguten. Dena den, ez dut uste Espainiako selekzioan jokatzeko deituko didatenik, nahiko adin txarrean bainago".

Dena den, Mireiak ez du amore emateko asmorik. "Luzaroan jokatzeko jarraitu eta egunen batean Espainiako selekzioarekin jokatu nahi nuke. Horretarako, asko entrenatu beharra dut oraindik. Talde mailan, Atlético San Sebastián taldean jarraitzeko asmoa dut. Gure senior taldeak ohorezko mailara igotzea lortu du, baina diru falta dela eta, ez du maila horretan jokatzeko aukera izan nuen, baina Atlético San Sebastián taldekoak jada ezagunak nituen, Donostiakoekin jokatzeko erabaki nuen. Ez naiz damu, jubenil mailan partida gehiago jokatzeko baititugu. Oraingoan, ez dut taldez aldatzeko asmorik".

MURUA

Oinetako konponketa

Laruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRET XU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA





Ibon Garmendia

Ibonek Ikastolan hasi zituen ikasketak eta, OHO bukatu ondoren, Institutura joan zen. Unibertsitate ikasketak, berriz, Arrasaten egin zituen. "Ingeniaritza teknikoa ikastera joan nintzen eta nola hala bukatu nuen!". Egun, Ibonek Ormaiztegiko Elarga enpresan lan egiten du.

Ingeniari ona denik ez dugu zalantzan jarriko, baina Ibon ez da horregatik ezaguna herrian; kultur arloan egiten duen lan itzelagatik baizik. Txistulari, txalapartaria, Lekaioko kidea... Otamotzekook bere laguntza behar izan dugun guztietan ere laguntzeko prest agertu da. Ibon oso gaztetan hasi zen txistua jotzen. "Osaba *Jostenka* igandero ikusten nuen txistua jotzen eta nik ere hastera erabaki nuen. Osabak, Unai, Oihane eta Ainara lehengusuek eta nik leinua osatzen dugu jada". Txalaparta jotzen, berriz, 18 urterekin hasi zen. "UZTakoek ikastaroa antolatzen zuten eta koadrilako Joseba Etxeberriak eta biok izena eman genuen. Txalaparta kontua gora doala eta txistu kontua, berriz, mantentzen ari dela esango nuke".

Noizean behin atsedean hartzea komeni dela eta, Ibon Argentinan izan da uda honetan Gorka Ojanguren eta Joseba Plazaola lagunekin. "Argentinarrak europearragoak zirela uste genuen, baina Buenos Airesetik kanpo jendeak indigena itxura handia du. Nik uste baino herri amerikarragoa da".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolaria.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea eta lagunekin egotea.

-Bizitzeko toki bat?

URRETXU.

-Zenbat diruren truke joango zinateke Zumarragara bizitzera?

Oso garesti.

-Argentinako matea ala Getariako txakolina?

Txakolina. Matea behin bakarrik edan dugu eta niri gustatu zait gehien. Edaten hasiz gero "biziari" egingo nintzatekeela uste dut.

-Zer dela eta ez diozue jendeari igande goizetan lo egiten utzi nahi?

Lo egiteko gaua delako.

-Gustuko txistularia?

Bere garaian, Aitor Bastarrika.

-Txalaparta ala jaietako zalaparta?

Biak.

-Nori emango zenioke gustura egurra?

Askok merezi dute eta ez gara gu basoak botatzen hasiko...

-Zer kenduko zenuke Urretxuko jaietako egitarautik?

Zapatu gaueko orkestra.

-Eta zer jarriko zenuke?

Astearte goiza jai.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Denak.

-Egindako azken operaria?

Matea.

-Eta jasotakoa?

Nire urtebetetze egunean jaso nuen telefono mugikorra.

-Data bat?

Otsailaren 6a, nire urtebetetze eguna.

-Neska eta mutil izen bana?

Irantzu eta Jagoba.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Parean tokatzen dena. Irakurri, ahal diren egunkari guztiak irakurri behar direla uste dut.

-Gustuko telebista saioa?

"Vaya semanita".

-Bereziki gorroto duzuna?

"Cine de barrio".

-Liburu bat?

Euskaraz Txillardegiren "Euskal Herria helburu". Erdaraz, berriz, "La otra orilla de la droga" eta "Calle de la judería".

-Filme bat?

"Bailame el agua".

-Soinu bat?

Tuntturroena.

-Usain bat?

Belar moztu berriarena.

-Janari bat?

Horretan ez naiz oso zorrotza...

-Ura ala...

Garagardoa.

SÍO...
BAI?

Erantzuna Udal Euskaltegian
La respuesta en Udal Euskaltegiak

23 urte / 43 zentro /
Todos los niveles /
Horarios personalizados / Bekak /
HABEko diplomak ...

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta|Arrasate|Beasain|Bergara|Deba|Elbar|Elgoibar|Errenteria|Eskoriatza|
Hernani|Hondarribia|Irún|Lasarte-Oria|Legazpi|Mutriku|Pasaia|Tolosa|Urretxu-Zumarraga|Zarautz

2004-2005
IKASTURTEKO
EUSKARA
IKASTAROAK

ESKAINZA

EUSKALDUNTZE,
ALFABETATZE eta EGA.
Modulo eta ordutegi zabalak.
Bekak.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00

MATRIKULATZEKO EPEA
ZABALIK

16 urtetik gorakoentzat.

Berri gehiago Udal
Euskaltegian.

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

Labeaga kalea, 40 A (Belaustegi plaza berria) URRETXU Tel./faxes: 943 72 33 10
euskaltegi.urzum@udal.gipuzkoa.net

Santa Anastasiak 2004

Urretxuko giroa!!



Urretxuko Tabernariak

Florida • The Intrepid Fox • Laket • Motz
Goiko-Kale • Ezkurra • Navarro • Osaba
Avenida • Buhame • Aldapa

Ondo pasa jaietan!